



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Pertsonak eta ikaskuntza formala eta ez formala

58. dokumentua

2018ko apirila



AURKIBIDEA

1.	Ikasten duten Gipuzkoako biztanleak	3
1.1.	Ikasten duten pertsonak.....	3
2.	Pertsonak eta ikaskuntza formala.....	5
2.1.	Partaidetza ikaskuntza formalean: generoa eta adina	5
2.2.	Ikaskuntza formala: ikasketa-maila eta lan-egoera	7
2.3.	Ikaskuntza formala egiteko arrazoiak	9
2.4.	Maiztasuna ikaskuntza formalean.....	12
3.	Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala	13
3.1.	Partaidetza ikaskuntza ez-formalean: generoa eta adina	13
3.2.	Ikaskuntza ez-formala: ikasketa-maila eta lan-egoera.....	15
3.3.	Ikaskuntza ez-formala egiteko arrazoiak	17
3.4.	Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean	19

1. Ikasten duten Gipuzkoako biztanleak


1.1. Ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako hamar pertsona heldutik lauk ikasi egiten dute

25etik 74 urtera bitarteko hamar gipuzkoarretatik lauk¹ (% 41ek) ikaskuntza formaleko edo ez-formaleko jardueraren bat burutu dute azken hamabi hilabeteotan; ehuneko horri eutsi egin zaio azken urteotan, eta horrek agerian uzten du ikaskuntza-jarduera oso errotuta dagoela Gipuzkoako biztanle helduen artean.

1. grafikoa Ikaskuntza formala eta ez-formala egiten duten pertsonak

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


¹ Gipuzkoako pertsona helduek bizitza osoan zehar egiten duten ikaskuntzari buruzko inkesta (2018. urte hasieran egin).

Pertsona helduek bizitza osoan zehar egiten duten ikaskuntzaren barnean ikaskuntza formala eta ez-formala sartzen dira: ikaskuntza formalaren barnean arauturiko ikaskuntza-jarduerak daude (sartzeko baldintzak eta curriculum-edukiak araututa daude), eta hezkuntza-eremuaren barnean ematen dira (baimenduriko pertsonak eta erakundeek ematen dituzte); helburu nagusia titulu ofizial bat eskuratzea da.

Bere aldetik, ikaskuntza ez-formalak edozein eremutan eginiko ikaskuntza-jarduerak hartzen ditu (hezkuntza-erakunde batean, enpresan, beste eremu batzuetan...). Helburua ikaskuntza-helburu jakin batzuk lortzea da, ezarritako edukien programa betez, baina jarduera horiek amaitzean ez da lortzen titulu ofizialik, hainbat ziurtagiri-mota lor badaitezke ere.

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza-motaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Horri dagokionez, Gipuzkoako pertsona helduen % 10ek ikaskuntza formaleko jardueraren bat egin du azken urtean: ehuneko horri eutsi egin zaio urteetan barrena, eta 2013 eta 2018 bitartean balio horren inguruan egon da.

Bestalde, pertsonen % 36k egin du ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat. Kopuru horri eutsi egin zaio azken urteotan, urteen arteko aldaketa txikiekin; hala ere, aldaketa horiek ez dira esanguratsuak.

2. Pertsonak eta ikaskuntza formala

2.1. Partaidetza ikaskuntza formalean: generoa eta adina

Ikaskuntza formalean izaniko partaidetza-tasa (% 10ekoa) antzekoa da gizonen eta emakumeen artean

Azken urtean barrena, Gipuzkoako biztanle helduen % 10ek aitortu du ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartu duela galdeketa egin aurreko hamabi hilabeteetan, eta ez da ikusten desberdintasun nabarmenik emakumeen (% 9,5eko partaidetza) eta gizonen (% 10,5ekoa) artean.

3. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, sexuaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


Adina erabakigarria da ikaskuntza formalean: 27 puntuko aldea dago gazteen eta adinekoen partaidetzaren artean

Ikaskuntza formaleko jardueraren intzidentzia modu nabarmenean aldatzen da pertsonen adinaren arabera, eta adinarekin murriztu egiten da, argi eta garbi. Horrela, 25etik 34 urtera bitarteko pertsonen % 27,7k ikaskuntza formaleko jardueraren batean parte hartu duela adierazi du, eta, bitartean, ehuneko hori ia baliogabea da (% 0,7koa) 65etik 74 urtera bitartekoen artean.

Beraz, % 27 puntuko aldea dago bi adin-taldeen artean, talde gazteenaren eta helduenaren artean, ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeari dagokionez. Gainerako adin-taldeak tartean daude, eta joera beherazkoa da adinean aurrera egin ahala. Hori horrela, 35etik 44 urtera bitartekoen ikaskuntza formaleko partaidetza-tasa % 12koa da, eta tasa hori % 7ra jaitsi da 45etik 54 urtera bitartekoen artean.

4. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, adinaren arabera.

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

2.2. Ikaskuntza formala: ikasketa-maila eta lan-egoera


Ikasketa-maila erabakigarria da ikaskuntza formalean parte hartzerakoan

Orokorrean, pertsonen ikaskuntza-jardueretan duten partaidetzak zuzeneko lotura du lorturiko ikasketa-mailarekin². Hori horrela, jarduera-mota hauetan izaniko partaidetza handiagoa da ikasketa-maila altuak dituzten pertsonen artean.

Zehazki esateko, goi-mailako ikasketak egin dituzten Gipuzkoako biztanle helduen % 17,8k hartu du parte ikaskuntza formaleko jardueraren batean, eta ehuneko hori biztanle heldu guztien batez besteko datua (% 10) baino % 7,8 puntu handiagoa da. Ehuneko hori % 6,1era murriztu da bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen artean, eta % 4,2ra arte, berriz, lorturiko prestakuntza arautuaren mailarik altuena lehen hezkuntzako ikasketena duten pertsona helduen artean.

5. grafikoa Ikaskuntza formala, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Langabezia duden pertsonak dira gehien prestatzen direnak

Lan-merkatutik eskatzen diren lanbide askotan ezagutza jakin batzuk ziurtatu behar dira, eta horretarako ezinbestekoa da ezagutza horiek titulu ofizial baten bidez egiaztatzea (kasurik gehienetan).

² Aitortzen da lorturiko prestakuntza-maila funtsezkoa dela ikasten jarraitzeko, eta, batez ere, ikaskuntza formalaren arloan egiteko. Hezkuntza-sistemak zorrotzak eta eskakizun handikoak direnez (tituluak lortzen dira), maila txikiagoak egin dituzten pertsonen zailagoa izaten dute sistemaren barnean jarraitzea eta/edo bigarren aukera bat izatea (Europako Batzordea).


Ikaskuntza formalaren prozesua, ikaskuntza orokorraren aldia amaitu ondoren garatu ohi da, eta modu etengabea eta jarraitua egin ohi da, lan-merkatuan sartu aurreko aldian.

Prestakuntza arautuaren edo ikaskuntza formalaren prozesua hori izaten bada ere, garrantzitsua da, era berean, jada lan-munduan dauden (langile gisa edo ez) eta ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzen duten pertsona helduen taldea.

Hori horrela, eta lan-egoera kontuan izanik, azken urtean ikaskuntza formalean gehien parte hartu duen taldea langabetuena da (% 15); ondoren, lanean ari diren pertsonen taldea (% 11), eta azkenik beste egoera batean dauden pertsonen taldea (% 4).

6. grafikoa Ikaskuntza formala, lan-egoeraren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.



2.3. Ikaskuntza formala egiteko arrazoiak

Motibazio profesionala da ikasteko arrazoi nagusia

Hasiera batean, ikasteko motibazioa bi talde handitan sailkatzen da: arrazoi profesionalak eta arrazoi pertsonalak. Horri dagokionez, lehenik atera den emaitza hauxe da: ikaskuntza formaleko jarduerak egin dituzten pertsonen erdiak baino gehiagok esaten dute ikasteko arrazoi nagusia laneko jarduerarekin edo jarduera profesionalarekin lotuta dagoela.

Egoera hori orokorra da talde guztietan, generoaren eta adin-taldean arabera, baina ikusten da emakumeek argudiatu dituztela gehien arrazoi profesionalak (% 64,1ek, eta gizonen kasuan % 51,2k); aldiz, gizonek arrazoi pertsonalak pixka bat gehiago agertu dituzte (% 35,9k, eta emakumeen kasuan % 48,8k).

1. taula Motibazioa ikaskuntza formalerako, generoaren eta adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA	57,3	42,7
Emakumezkoak	64,1	35,9
Gizonezkoak	51,2	48,8
Adin taldak		
25-34 urte	66,7	33,3
35-44 urte	50,0	50,0
45-64 urte	52,4	47,6
65-74 urte	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Bi argudio zehatz nabarmentzen dira: gai erabilgarrietako ezagutzak eskuratzea lan-aukerak hobetzeko eta pertsonarentzat intereseko gaia izatea

Azterketaren oinarria Gipuzkoako biztanleek aipaturiko argudioetan jartzen badugu, emaitza hauek nabarmentzen dira:

- Motibazio profesionalari loturiko ia erantzun guztiak bat datoz hauei dagokienez: “nire lana hobeto egiteko eta/edo nire lanbide-aukerak hobetzeko” argudioaren garrantzia (% 79k batez beste) eta “lana lortzeko aukera gehiago izateko” bideraturiko ikaskuntza (% 65ek). Horiek dira bi arrazoi nagusiak, eta argi eta garbi daude lotuta lan-jarduerarekin, karrera profesionalarekin eta pertsonen enplegugarritasunarekin.

- Bigarren tokian aipatzen diren argudioak, lan-ibilbidearekin loturikoak, hauek dira: "lana/lanbidea aldatzeko aukera gehiago izatea" (% 52k) eta "beste enpresa batera joateko aukera gehiago izatea" (% 43k).

Azken batean, motibazio profesionalaren garrantzia berresten da, ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko argudioak (zehatzak) ematerakoan. Gainera, azpimarratu behar da erantzun horietan bat datozela gizonak eta emakumeak, salbuespen hauekin:

- "Negozio bat sortzea" argudioa; gizonen artean % 15,3 puntu handiagoa da emakumeen artean baino, eta hori bat dator ekintzaitzaren adierazleek agertu ohi duten genero-arrailearekin.
- "Beste enpresa batera joateko aukera gehiago izatea" argudioa, % 8 puntuko aldearekin; bi argudioetan gizonak dira nagusi (% 25,6 eta 46,5 hurrenez hurren), eta emaitza horrek emakumeen lan-mugikortasuna txikiagoa dela iradoki dezake.

Ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko dauden arrazoi pertsonalen artean, bi argudio nagusi hauek nabarmentzen dira: "interesatzen zaidan gai baten inguruko ezagutzak edo teknikak eskuratzea" (% 87k) eta "nire eguneroko bizitzarako erabilgarriak direnak" (% 68k).

2. taula Ikaskuntza formalerako berariazko arrazoiak, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	79,3	79,1	79,5
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	42,7	46,5	38,5
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	52,4	53,5	51,3
Nire negozioa sortzeko	18,3	25,6	10,3
Lana lortzeko	64,6	62,8	66,7
Ziurtagiria lortzeko	79,3	79,1	79,5
Arrazoi pertsonalak			
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	68,3	74,4	61,5
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	86,6	90,7	82,1
Jendea ezagutzeko	43,9	39,5	48,7

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

Ikasteko arrazoen garrantziak desberdintasun txiki batzuk ditu, pertsonen ikasketa-mailaren arabera

Atxikiriko koadroak jasotzen du erantzunaren banaketa pertsonen ikasteko motibazioari dagokionez, lorturiko ikasketa-mailaren arabera. Lorturiko emaitzek agerian jartzen dute:

- Emaizten rankinga bera da, bai arrazoi profesionalen artean, bai arrazoi pertsonalen artean, eta desberdintasunak oso txikiak dira.
- Horrela, ikaskuntza formalean parte hartzeko adierazi diren bi arrazoi profesional nagusiak hauek dira, lorturiko ikasketa-maila edozein izanik ere: *“nire lana hobeto egiteko eta/edo nire lanbide-aukerak hobetzeko”* eta *“ziurtagiri bat eskuratzeko”*.
- Hirugarren argudioa hau da: *“lana lortzeko aukera gehiago izateko”*; argudio hori adierazi du ikaskuntza-mota hau egiten duten pertsonen bi herenak, eta bat dator hiru ikasketa-mailetan.
- Gainerako argudioak gutxiagotan aipatzen dira kasu guztietan, baina emaitzak antzekoak edo nahiko gertukoak dira.

Azkenik, gutxienez pertsonen % 80k agertu du argudio nagusi hau hiru taldeetan: *“interesatzen zaidan gai batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko”*.

3. taula Ikaskuntza formalerako arrazoiak, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Goi mailakoak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	100,0	70,0	79,6
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	79,3	79,1	79,5
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	64,6	62,8	66,7
Nire negozioa sortzeko	50,0	35,0	44,4
Lana lortzeko	52,4	53,5	51,3
Ziurtagiria lortzeko	18,3	25,6	10,3
Arrazoi pertsonalak			
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	86,6	90,7	82,1
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	68,3	74,4	61,5
Jendea ezagutzeko	43,9	39,5	48,7

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.


2.4. Maiztasuna ikaskuntza formalean

Ikaskuntza formalean % 6koa da etengabeko partaidetza

Ikaskuntza-jarduerak bi denboralditan sailka daitezke: alde batetik, galdeketaren aurreko hamabi hilabeteetan egiten den ikaskuntza dugu, eta, bestetik, aurreko lau asteetan egiten dena; horri etengabeko ikaskuntza deitzen zaio, eta jarraian agertzen dira horren emaitzak.

Pertsonen %6k etengabeko ikaskuntza formala egiten du, desberdintasun nabarmenik gabe generoaren arabera (gizonen %6,3k eta emakumeen %5,6k).

7. grafikoa Maiztasuna ikaskuntza formalean, generoaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

Adin-taldearen arabera, ikaskuntza formaleko etengabeko partaidetza handiagoa da gazteen artean (% 18,5koa), eta jaitsi egiten da adinak aurrera egin ahala (azken 12 hilabeteetan eginiko ikaskuntza formalaren kasuan bezala); horrela, adinekoen artean ez dago inolako partaidetzarik.

4. taula Maiztasuna ikaskuntza formalean, adin-taldearen arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

Adin taldeak	Azken 12 hilabeteak	Azken 4 asteak
25-34 urte	27,7	18,5
35-44 urte	12,0	9,0
45-64 urte	5,9	2,0
65-74 urte	0,7	0,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

3. Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala


3.1. Partaidetza ikaskuntza ez-formalean: generoa eta adina

Gipuzkoako pertsona helduen heren batek hartu du parte ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean

Ikaskuntza ez-formaleko jardueren ondorioz ez da titulu ofizialik lortzen, baina edukien programa bat izan behar dute, helburu jakin batzuekin. Iraupena oso desberdina izan daiteke, eta hainbat gunetan egin daitezke, ez derrigorrez hezkuntza-eremuari loturikoetan.

8. grafikoa Ikaskuntza ez-formala egiten duten pertsonak, sexuaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Hori dagokionez, pertsona helduen heren batek (% 36k) adierazi du ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean hartu duela parte azken urtean barrena. Ehuneko hori antzekoa da gizonen eta emakumeen artean, baina emakumeen artean handiagoa da partaidetza (% 38koa, gizonen artean % 34koa den artean).


Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza jaitsi egiten da adinarekin

Ikaskuntza ez-formaleko jardueretan izaniko partaidetza murriztu egiten da pertsonen adinarekin, ikaskuntza formalaren kasuan aipatu den bezala.

Hori horrela, 25etik 34 urtera bitarteko hamar gaztetik ia lauk (% 39k) eta 35etik 44 urtera bitarteko hamar pertsonatik bostek (% 49k) parte hartu dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean azken 12 hilabeteetan. Partaidetza hori modu nabarmenean jaitsi da hurrengo adin-tarteetan, eta % 16an kokatu da 65etik 74 urtera bitarteko pertsonen artean.

9. grafikoa Ikaskuntza ez-formala egiten duten pertsonak, adin-taldean arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


3.2. Ikaskuntza ez-formala: ikasketa-maila eta lan-egora

Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen erdiak baino gehiagok egin dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat

Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza igo egiten da, argi eta garbi, pertsonen ikasketa-mailaren arabera. Hori horrela, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen erdiak baino gehiagok egin dituzte jarduera hauek (% 55ek); bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen artean hirutik batek (% 32k), eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen artean hamarretik batera jaitsi da kopurua (% 13k).

10. grafikoa Ikaskuntza ez-formala, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.


Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza handiagoa da lan-jarduera duten pertsonen artean

Pertsonak ordaindutako lan-merkatuan duten egoeraren arabera, antzematen da merkatu horretan aktibo dauden pertsonak (enplegua dutelako nahiz langabezia daudelako) partaidetza handiagoa dutela, argi eta garbi, ikaskuntza ez-formaleko jardueretan.

Zehazki esateko, enplegua duten bi pertsonatik batek adierazi du mota horretako jardueretan hartu duela parte azken urtean zehar, eta langabezia dauden pertsonen % 35,6k. Aldiz, partaidetza murriztu egin da (hamarretik bi pertsona baino gutxiagora) lan-merkatuan aktibo ez dauden pertsonen kasuan (erretiratuak, etxeko lanak egiten dituztenak, lan-merkatuan sartu gabe daudenak...).

11. grafikoa Ikaskuntza ez-formala, lan-egoeraren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

3.3. Ikaskuntza ez-formala egiteko arrazoiak

Hiru pertsonatik bik arrazoi profesionalengatik parte hartzen dute ikaskuntza ez-formalean

Ikaskuntza ez-formala egiteko arrazoiaren artean erabakigarria da lan-jarduera. Hain zuzen ere, ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duten hamar pertsonatik zazpik (% 68,9k) adierazi dute motibazio profesionala dela horretarako arrazoi nagusia.

Egoera bera da bi sexuetan, bai eta adin-talde guztietan ere, 65 urte eta gehiagokoen taldera iritsi arte; hortik aurrera, motibazio pertsonala da nagusi.

5. taula Ikaskuntza ez-formalerako motibazioa, generoaren eta adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA	68,7	31,3
Emakumezkoak	68,2	31,8
Gizonezkoak	69,3	30,7
Adin taldak		
25-34 urte	74,5	25,5
35-44 urte	80,6	19,4
45-64 urte	69,1	30,9
65-74 urte	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

Arrazoi nagusiak: lanbide-aukerak hobetzea eta intereseko gai baten inguruko ezagutzak eskuratzea

Aintzat hartu diren argudioak gehiago zehaztuz, ikus daiteke Gipuzkoako biztanleen zati handi batek arrazoi hauengatik parte hartu duela ikaskuntza ez-formaleko jardueretan: "nire lana hobeto egiteko eta/edo nire lanbide-aukerak hobetzeko" (% 76,9k); "interesatzen zaidan gai baten inguruko ezagutzak edo teknikak eskuratzeko" (% 88,8k), edo "nire eguneroko bizitzarako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko" (% 67,0k). Hiru arrazoi horiek gizon eta emakumeek partekatzen dituzte, ia-ia desberdintasunik gabe.

Bigarren multzo batean aipatu dira: "ziurtagiri bat lortzeko" (% 40,8k), "jendea ezagutzeko/ondo pasatzeko" (% 28,2k) eta "lana aurkitzeko aukera gehiago izateko" (% 26,5ek).

Azkenik, gainerako arrazoiak gutxiago aipatu dira eta % 20koa baino garrantzi erlatibo txikiagoa dute, jarduera hauetan parte hartzen duten biztanleei dagokienez. Azkenik, aipatu beharrekoa da garrantzi erlatiboa bera dela gizonen eta emakumeen artean kasurik gehienetan.

Azkenik, aipatu behar da arrazoi nagusien ranking hau bera errepikatzen dela, eta aipamen maiztasun berberarekin, ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko arrazoitzat (arrazoi konkretutzat) hartzen den argudio bakoitzarekin.

6. taula Ikaskuntza ez-formalerako berariazko arrazoiak, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	75,9	75,7	76,0
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	40,8	40,0	41,6
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	26,5	24,3	28,6
Nire negozioa sortzeko	16,3	13,6	18,8
Lana lortzeko	13,6	10,7	16,2
Ziurtagiria lortzeko	8,8	5,0	12,3
Arrazoi pertsonalak			
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	88,8	89,3	88,3
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	67,0	63,6	70,1
Jendea ezagutzeko	28,2	25,7	30,5

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.


3.4. Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean

Gipuzkoako biztanle helduen % 35,9k parte hartu du ikaskuntza ez-formalean azken urtean, eta % 12,6k azken lau astetan

Aurretik aipatu den bezala, etengabeko ikaskuntza galdeketaren aurreko lau asteetan egin dena da. Hori horrela, eta ikaskuntza ez-formalari dagokionez, pertsona helduen % 12,6k parte hartu du ikaskuntza ez-formalean galdeketaren aurreko lau asteetan.

Gainera, ez dago desberdintasunik generoaren arabera; horrez gain, partaidetza handiagoa da gazteen artean, eta jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala.

12. grafikoa Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

7. taula Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean, adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Azken 12 hilabeteak	Azken 4 asteak
Adin taldeak		
25-34 urte	39,2	18,5
35-44 urte	49,0	15,0
45-64 urte	34,7	10,7
65-74 urte	16,3	8,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.



Titulua:	Pertsonak eta ikaskuntza formala eta ez formala 58. dokumentua, 2018koapirila
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa- lana: Gipuzkoa	Gipuzkoan bititza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko inkesta. Datakey, S.A, 2017.